

Maccabi taldearen Gasteizko partida bertan behera uztea exijitu du Palestinarekin Elkartasunak

ALEA :: 08/01/2025

Plataformak salatu du Israelek kultur eta kirol ekimenak palestinarren aurkako krimenak estaltzeko erabiltzen dituela eta mobilizatzeko deia egin du.

Otsailaren 7an Maccabi Tel Aviv saskibaloit talde israeldarrak Baskoniaren aurkako partidua dauka Gasteizen. Urtero bezala, talde sionistaren bisitak hautsak harrotu ditu hirian, eta Palestinarekin Elkartasuna taldeak partidua bertan behera uzteko exijitu du.

Israelen aurpegi garbiketari ez. Maccabi kanpora lelopean aurkeztu dute ekimena, eta partiduen egunean mobilizatzeko deia ere egin dute, "Euskal Herrian edo beste inon genozidioa normalizatzen duen ekitaldirik ez baimentzeko". Hala ere, oraindik ez dute deialdi zehatzik plazaratu.

Gauza jakina da Israelek Maccabi Tel Aviv taldea bera eta bestelako kultur eta kirol ekitaldiak erabiltzen dituela bere irudia normalizatzeko. Palestinarekin Elkartasuna plataformatik ere salatu dute "herri palestinarren aurkako krimenak egiten dituen estatu kolonial baten existentzia normalizatzeko" erabiltzen dituela halakoak.

2005ean ezarri zuen Israelek "Hasbara" plana, propaganda estrategia berria, estatu sionistaren irudia hobetzeko eta "kolonizazioarekin duen lotura ezkutatzeko". Plataformako kideek azaldu dutenez, Israelgo ministroek "argi eta garbi" onartu izan dute nazioartean halako ekitaldi eta artistak sustatzearen helburua hori dela, "Israelen aurpegirik atseginena" erakustea, eta "entitate kolonial gisa duen errealitatetik bereiztea".

Sionismoaren normalizazioa Euskal Herrian

Euskal Herrian aurrekari ugari izan ditu normalizazio estrategia honek. Bilbon emanaldi bat egin berri du Noa abeslari israeldarrak, eta Espainiako txirrindularitza *Vueltan* parte hartu zuen Israel Premier Tech taldeak. Kirol ekitaldiak ere ugariak izan dira, askotan etorri izan da Maccabi Tel Aviv saskibaloit taldea Gasteiaz, Euroligan parte hartzen duelako.

Kirol arloan "Israelgo estatuaren ordezkari nagusia" da Maccabi, plataformaren hitzetan. Izan ere, saskibaloit taldeko jokalariek eta zuzendaritzak aktiboki hartu dute parte Israelgo armadaren aldeko kanpainen, eta, salatu dutenez, "baita herri palestinarren aurkako genozidioa areagotzen ari den testuinguruan ere".

Palestinarekin Elkartasuna plataformatik salatu dute Israelekin harremanak normalizatzeak indartu egiten duela proiektu sionistaren zilegitasuna, eta harremanak eteteko beharra azpimarratu dute. Joan den azaroan egindako agerraldi batean eskatu zuten Israelekin harreman oro eteteko, harreman militarrek, diplomatikoak, komertzialak zein kirol eta kultura arlokoak.

Israel ezegonkortzeko interes falta

Euskal erakunde publikoei leporatu die plataformak ez dutela "benetako interesik" Israel ezegonkortzeko. Are gehiago, Israel "lehentasunezko bazkidetzat" hartzea egotzi diete, eta Mendebaldeko Asia kontrolatzeko "funtsezko potentzia" gisa hartzen dutela salatu.

Gainera, Israel ezegonkortzeko benetako interesik ez izatea leporatzen diete euskal erakunde publikoei, Israel "lehentasunezko bazkidetzat" eta Mendebaldeko Asiaren gaineko kontrolaren funtsezko potentzia gisa jotzen baitute. Plataformako kideek adierazi dute Palestinarekin elkartasuna izateak esan nahi duela Israel den estatu terrorista desegitearen alde egitea.

<https://eh.lahaine.org/maccabi-tel-aviv-taldearen-gasteizko>